

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	AZAZKALAK ZAINTEKO ETA EDERTZEKO TEKNIKA ESTETIKOAK	Iraupena	70
Kodea	MF0357_2		
Lanbide-arloa	IRUDI PERTSONALA		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Esku eta oinetako zainketa estetikoak	Maila	2
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar den gainerako prestakuntza	Segurtasuna eta osasuna esku eta oinetako zainketa estetikoetan.	Iraupena	70
	Azazkal artifizialak		80
	Esku eta oinetako tratamendu estetikoak		60
	Esku eta oinetako zainketa estetikoetako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator UC0587_2 gaitasun-atalarekin: AZAZKALAK ZAINTEKO ETA EDERTZEKO TEKNIKA ESTETIKOAK APLIKATZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Esku eta oinetako alterazioak identifikatzea eta haien ezaugarriak behatzea, manikura- eta pedikura-teknika egokiena hautatzeko.
- EI1.1 Bezeroaren esku eta oinen morfologia behatzea, haren beharretara egokitzen den teknika zehazteko.
- EI1.2 Medikuek espezialistari kontsultatu beharreko azazkalak anomalien berri azaltzea.
- EI1.3 Eskuen eta azazkalen ezaugarri morfologikoak zerrendatzea, azazkalaren gorputz egokienaren forma eta luzera hautatzeko.
- EI1.4 Bezeroaren eskaerak detektatzeko balio duten galdera tipoei erantzutea.
- A2: Bezeroa, ekipoak eta baliabideak prestatzea segurtasun- eta higiene-teknika egokiak aplikatzeko.
- EI2.1 Profesionalak zer itxura izan behar duen deskribatzea: ilea, janzkera, osagarriak eta higiene pertsonala.
- EI2.2 Manikurako eta pedikurako teknikak aplikatzeko bezeroak eta profesionalak izan behar duten jarrera ergonomikoa deskribatzea.
- EI2.3 Tresnak, materialak eta produktuak prestatzea, behar diren higiene- eta desinfekzio-teknikak aplikatzeko, eta zer konposizio duten eta zertarako diren aintzat hartzea.
- EI2.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, bezeroa beharrezko higiene- eta segurtasun-kondizioetan prestatzea manikurako eta pedikurako tekniketarako.
- A3: Azazkalak eta kutikula txikuntzeko teknikak aplikatzea, behar diren tresnak eta kosmetikoak hautatuz eta prozesua dagokion ordenan eta segurtasun- eta higiene-kondizioetan eginez.
- EI3.1 Manikurako eta pedikurako prozesuen faseak azaltzea, eta haietako bakoitzean zer eragiketa tekniko egiten diren adieraztea.
- EI3.2 Manikuran eta esku eta oinetako azazkalen zainketa estetikoetan aplikatzen diren tekniketako kosmetikoak, tresnak eta materialak trebeziaz aplikatzea.
- EI3.3 Modelo baten azazkalak mozteko kasu praktiko batean:
- Eskuko azazkalak teknika egokiarekin moztea, aliketa esteril batekin azazkalaren forma konbexua errespetatzeko.
 - Oinetako azazkalak lauki-forma errespetatuz moztea, alterazioak —hala nola haragian sartzea— saihesteko.
- EI3.4 Modelo baten azazkalak limatzeko kasu praktiko batean:
- Azazkalen luzera nahiz forma esku-motara, azazkalen ezaugarrietara eta bezeroaren eskaeretara egokitzea.
 - Azazkalaren gorputzaren ertz askea forma desberdinetan limatzea.
 - Azazkalaren luzera aldatzeko.
 - Azazkalaren forma aldatzeko.
 - Ertz askea uniforme gera dadin eta geruzatan ireki ez dadin.
- EI3.5 Modelo baten kutikulari tratamendu estetikoak egiteko kasu praktiko batean:
- Beroa, produktu bigungarriak eta abar aplikatzea, azazkalaren gorputza eta haren ingurua kaltetu gabe kutikula biguntzeko.
 - Gunean kutikula kentzeko produktuak aplikatzea, esposizio-denbora eta kontuan hartu beharrekoak errespetatuz.
 - Kutikula askatzea gunea kaltetuko ez duen tresna berezi batekin eta kontu handiz kentzea, sorgunearen kontrako noranzkoan.
 - Kutikulak kentzeko produktua erabat kentzea, gunea xaboi-urez eta arretaz garbituz, hondarrik gera ez dadin.
 - Hatz-bizarrak aliketa esteril batekin eta arretaz moztea, eta produktu antiseptiko egoki batekin desinfektatzea gunea.
- EI3.6 Larruazaleko gogorguneak eta zimurak ezabatzea, produktu keratolitikoaren eta/edo osagarri urratzaileen bidez.

EI3.7 Manikurako eta pedikurako kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Beharrezko produktuak eta tresnak hautatzea eta prestatzea.
- Makillajea kentzeko, mozteko, limatzeko eta kutikulak egokitzeko teknikak azazkalen ezaugarriari eta bezeroak eskatutako zerbitzuari egokitu aplikatzea.
- Azazkalaren gorputzaren tratamendua egitea.

EI3.8 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, azazkala eta azazkalaren ingurua zaintzeko masajea emateko mugimenduak egitea, intentsitate eta erritmo espezifikoak errespetatuz.

A4: Azazkalak leuntzeko eta makillatzeko teknikak aplikatzea, eta zerbitzuaren emaitzak ebaluatzea, beharrezkoa bada neurri zuzentzaile egokiak proposatzeko.

EI4.1 Azazkalaren gorputza eta ingurua leundu edo makillatu aurretik, haiek garbitzeko teknikak aplikatzea.

EI4.2 Azazkalak leuntzeko teknikak aplikatzea, tresna eta produktu espezifikoak erabiliz —kosmetikoak, zapiak edo limak— eta azazkalaren gorputzaren ezaugarriak errespetatuz.

EI4.3 Berniz-kolorea hautatzeko irizpideak azaltzea, arroparen, koloretearen eta ezpainetakoaren kolorearekin erlazionatuz, harmonia egokia sortzeko.

EI4.4 Kosmetiko apaingarriak ematea azazkaletan, teknika espezifikoak hautatuz, azazkalaren erdigunetik abiatu eta hiru pintzelkada eta bi geruza emanez, emaitza uniformeak lortzeko.

EI4.5 Lehortze bizkorreko produktuak aplikatzea, laborategiaren argibideak aintzat hartuz, eta erabilerak eta kontuan izan beharrekoak deskribatzea.

EI4.6 Bezeroaren gogobetetze-maila —zerbitzuaren emaitzari buruzkoa zein arreta pertsonalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galdera tipoa egitea.

EI4.7 Bezeroa ez gogobetetzea eragin dezaketen arrazoi teknikoak eta bezeroaren arretakoak aipatzea.

A5: Emandako zerbitzuaren kalitatea kontrolatzeko prozedura egokiak aplikatzea.

EI5.1 Manikura- eta pedikura-teknikak aplikatzean kalitatea kontrolatzeko aintzat hartu beharreko alderdiak deskribatzea.

EI5.2 Esku eta oinetako zerbitzu estetikoak ematean aurreikusitako emaitzekiko izandako desbideratzeak detektatzea eta aztertzea.

EI5.3 Zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen kausa teknikoak edo bezeroarenganako arreta pertsonalekoak zerrendatzea.

EI5.4 Zerbitzua emateko prozesua eskematizatzea, eta detektatutako desbideratzeak haiek gertatutako faseekin lotzea.

EI5.5 Zerbitzuko hutsuneak zuzentzeko eta emaitzak optimizatzeko neurriak aipatzea.

EI5.6 Esku eta oinak edertzeko prozesuetan arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko zer arau aplikatu behar diren deskribatzea.

Edukiak

1. Azazkalen alterazio estetikoak.

- Sailkapena eta deskribapena.
- Tratamendu medikoa behar duten alterazioak identifikatzea, bezeroa espezialistarengana bideratzeko.

2. Esku, oin eta azazkalen azterketa estetikoak:

- Eskuen eta oinen morfologia.
 - Esku- eta oin-motak: tamaina eta forma.
 - Larruazalaren kolorazioa.
- Azazkalen egitura eta morfologia:
 - Azazkalaren zatiak.
 - Azazkal-motak: luzera eta forma.
 - Azazkalaren ingurua eta ertz askea: itxura, lodiera, gogortasuna, kurbadura eta kolorea.
 - Azazkalaren hazkuntza.

3. Manikura- eta pedikura-zerbitzuaren antolaketa

- Janzkera eta profesionalak babesteko neurriak.
- Lan-eremua prestatzea.
- Ekipoa prestatzea.
- Bezeroa kokatzea.
- Ergonomia. Altzariak eta jarrera-higienea.
- Bezeroa babesteko neurriak.

4. Manikura eta pedikura klasikoan erabiltzen diren tresnak

- Deskribapena eta hautatzeko irizpideak. Kutikuletarako eta azazkaletarako aliketak. Zatiak. Materialak eta formak. Limak. Motak, formak, materialak, pikortatze-mota. Ahuntz-hanka, laranjondo-ziria eta abar. Kristalezko eta plastikozko ontziak. Hatz-bereizgailuak. Belakiak. Azazkaletarako eskuila. Espatulak. Apar-harria edo gogorguneetarako belakiak. Materialak, formak eta testurak. Azazkalak leuntzeko eta distirarazteko leungailuak edo zapiak. Oinentzako bainuontziak.

- Manikura- eta pedikura-tresnak erabiltzeko teknikak.
- Tresnen higiena, desinfekzio eta/edo esterilizazioa eta kontserbazioa.

5 Manikura eta pedikura klasikoko teknikan aplikatzen diren produktuak eta kosmetikoak

- Deskribapena eta sailkapena.
 - Antiseptikoak eta desinfektatzaileak: alkohola, ur oxigenatua, xaboiak eta abar.
 - Azazkalak eta kutikula zaintzeko kosmetikoak: bigungarriak, hidratatzaileak, nutritiboak, keratolitikoak, gogorgarriak, babes-oinarriak eta abar.
 - Azazkalak makillatzeko kosmetiko apaingarriak: berniz-kentzekoak, babes-oinarria, bernizak, lehortzaileak, berniz-babesak eta abar.
- Hautatze-irizpideak.
- Manikura- eta pedikura-tekniketan erabiltzen diren kosmetikoak manipulatzeko, biltegiatzea eta kontserbatzea. Inguru-kondizioak. Agente kutsatzaileak.

6 Manikura eta pedikura klasikoan erabiltzen diren tresnak

- Azazkalen makillajea kentzea: azazkalaren gorputza eta inguruko tolestura.
- Azazkalak aztertzea eta behatzea. Fitxa teknikoa.
- Txukunketa eta forma:
 - Esku eta oinetako azazkalak moztea.
 - Azazkalak limatzea.
 - Kutikula biguntzea eta kentzea.
 - Kutikulari eta azazkalaren gorputzari zainketak egitea.
 - Masaje-mugimenduak: sekuentziak, efektuak, erabilera eta kontraindikazioak.
 - Azazkalak leuntzea eta/edo makillatzea.
- Hondakinak tratatzeko arauak.

7 Manikura eta pedikura klasikoan erabiltzen diren tresnak

- Kalitatearen kontzeptua.
- Manikurako eta pedikurako zerbitzuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola.
- Estetika-areto bateko edo ile-apaindegiko bateko zerbitzuaren kalitatea definitzen duten parametroak.
- Bezeroaren gogobetetze-maila neurtzeko teknikak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Esku eta oinetako zainketa estetikoak.